





8 Poligonoak eta izarrak

Dakigun bezala, poligonoak marrazteko, bi puntu lotzen dituen zuzenkiaren alde bakarrean egon daitezke puntuak, eta horixe egiten ibili gara orain arte; baina zer gertatuko litzateke baldintza hori beteko ez bagenu?

3 puntu	4 puntu
	
Kasu hau berezia da; izan ere, edozein zuzenki marrazten dela ere, beti geratzen da puntu bat zuzenkiaren bestaldean. Baina, hala ere, honek poligono bat osatzeko aukera ematen du. Zer poligono sortzen da?	Kasu honetan ere baldintza ez da errespetatu, eta marraztutako zuzenkiaren bi aldeetan puntuak daude. Puntu horitik beste batera egin nahi bada zuzenkia, baina bere bi aldeetan puntuak utziz, aukera berriro puntu berdera itzultzea da. Eta hori ez da poligono bat. Abiatu berdea ez den beste puntu batetik baldintza errespetatu gabe Zer gertatzen da?


5 puntu				
Kasu honetan, arau honi jarraituko zaio: zuzenkia hasten den puntutik, bere eskuinaldean bigarren dagoen puntura luzatuko da. Baldintza hori betez, lortzen diren irudiak izar-poligonoak dira.				
				

- Kasu honetan, zer poligono azaltzen da izarraren erdian?

- Izar txiki horren erdian ere, pentagono bat ikusten da. Horren barruan ba al dago beste bost puntako izar bat sortzerik?

- Pentagono horren erpinak ikasi bezala lotuz gero, beste bost izarreko izar txiki bat sortzen al da bertan?

1 Errepikapen hori bost puntako izarrena al da soilik? Ikertu ezazu beste pare bat izarrekin.



2 Eskuratu irudiak eta lotu erpinak zuzenkiak marraztuz (hariarekin edo <https://apps.mathlearningcenter.org/geoboard/>). 8, 12 eta 16 erpinekin.

